

# AITA FERMIN URREZKO EZTEGUETAN

*Doinmua: "Iparragirre abila dela"*

1

Uda partean han-hemen dira  
ospakizun eta jaiak,  
santu-santarik ez bada ere  
bada nok asmatu gaiak.  
Gaurko jai honen txanda  
gogokoa izan da:  
"Aita Ferminen eztaiak".  
Ondo merezi dozak ta hartu  
zorion ta ondonahiak!.

2

Aita Ferminen ezteguetan  
ez zan seme-alabarik,  
berrogeita hamar urte badira  
abade egin zalarik.  
Badau bizi- sormena  
hori da aitarena,  
nik ez daukat zalantzarik;  
Zer litzateke mundu gaixo hau  
holango aita-ama barik?

3

Berbetan labor, lanean samur  
euskaldunok ezaugarri,  
nun zer behar dan ta zelan egin  
zer eroan, zer ekarri...  
Asmatu eta landu  
inoiz ez da berandu,  
badaezpadan itzarri;  
lanerako prest inor badago  
prest burdi eta buztarri.

4

Behar doguna euki behar da,  
bada nok emon eskurik,  
Aita Ferminen ondoan ez da  
jantxakurrentzat lekurik.  
Dagona da baleko  
ez dagona balego...  
hauxe dauka segururik:  
Alkarlanean ez da faltako  
han urrezko eztegurik.

5

Kristau batentzat ez dala nahiko  
kirieleison ta gloria,  
kaleko haize hotzetik gorde  
orduan pozik txoria...  
Ona da eztegua  
ta nun da enplegua?  
Ferminen kezka hori da.  
Goiko graziz ta beheko izerdiz  
gauzatzen da historia.

6

Burua argi, bihotza bero  
lanean esku abilak,  
nok daki zenbat zor ete deutson  
ama Euskera umilak.  
Euskera dau helburu,  
aldizkari, liburu...  
kontau ezineko pilak.  
Ez jok bizia alperrik galdu  
Kalamuako mutillak!

7

Komentu zaharrak erabarritu  
besteak hotel bihurtu,  
han eta hemen bizia sortzen  
ez dau burua makurtu.  
Gaur arrastoa hartu  
bihar lanean sartu,  
dirua nori lapurtu?  
Kotramaisuak suzmoz asmatzen  
zelan leiken hau egurtu.

8

Esanak esan egin arren be  
danak hemen esan ezin,  
inoren onak entzun beharrak  
ez al deusku emongo min.  
Aita Fermin da praile  
Jesusen jarraitzaile,  
emongo deusku zer egin....  
Askoren partez aupatu daigun:  
Gora gure Aita Fermin!

A.Martzel

